marte
CULTURA OCIO COMUNICACIÓN

Itziar Eizagirre, Oier Santos, Tere Irastortza, Gaizka Zabarte, Katixa Agirre eta Maddalen Marzol, atzo, Talai-Berri txakolindegian.

# Zentzumenekin jolasean

## Ekitaldi berezi batekin hasi zuten atzo Literaturia 2015 Zarautzen. Katixa Agirre, Oier Santos, Gaizka Zabarte eta Tere Irastortzak euren azken liburuen pasarteak irakurri zituzten eta Itziar Eizagirre enologak eta Maddalen Marzol lurringileak zapore eta usaina jarri zioten bakoitzari

✎ 📷 ***Ainara Lozano**ren erreportajea eta argazkia*

Usain edo zapore batek leku edo pertsona bat ekartzen digu gogora. Liburuek ere horretarako gaitasuna dutela erakutsi zuten atzo, Literaturia 2015 ospatzeko antolatu duten egitarau oparoaren baitako lehenengo ekitaldian. Bigarren urtez jaialdia Gipuzkoara ekarri eta Ardoa hartu dute gaitzat aurtengoan antolatzaileek. *Odolean daramagu* lemapean hamaika ekimen burutuko dira datozen egunetan Zarautz euskal letren plaza bihurtuz. Aperitibo gisa, *Zentzumenen zoramena* ekitaldiarekin gozatzeko aukera bikaina izan zuten atzo Talai-Berri txakolindegira bertaratu zirenek. Udaberriko literatur uzta entzun, dastatu eta usaindu zuten. Oier Santos, Tere Irastorza, Gaizka Zabarte eta Katixa Agirrek beren azken lanetako pasarteak irakurriko zituzten eta pasarte horietan oinarrituta, Talai-Berri txakolindegiko enologo Itziar Eizagirrek bakoitzari egokien zetorkion txakolina edo ozpina proposatu zituen dastatzeko. Era berean, *El Tocador de Dorothy* bloga gidatzen duen Maddalen Marzol lurringileak bakoitzari propio ekoitzitako lurrina ekarri zuen, bertaratu ziren guztiek usaintzeko.

Ana Galarraga Literaturiako antolatzaileak hasieratik argi utzi zuen: "Jolastera etorri gara. Literaturaz gozatzeko modu asko daudela erakutsi nahi dugu". Eta hala egin zuten bi orduz. Tere Irastortzak hasi zuen zentzumenak dantzan jartzeko ibilbidea. Bere obra lauetatik "suabeena" zela azaldu zuen Galarragak. Oraindik argitaratu gabe du bere azken poema liburua, *Mundua betetzen zenuten* Irastortzak baina bertan jasotako lanak koaderno batean ekarri zituen. Poesia ederrak irakurri zituen. Entzundakoari usaina jartzeko garaia iritsi zen eta Maddalen Marzolek "Talai-Berriko parajeak hala eskatuta", usain gazia, itxasoa eta txakolina batzen dituena ekarri zuen. Laboratorio Olfattivo etxe italiarraren *Salina* lurrina proposatu zuen. "Urrutitik usaintzen da!", oihukatu zuen batek. Usain gazia oroimenean zutela zein edari tokatuko ote zitzaion jakiteko irrikan ziren. Enologoak Talai-Berri txakolina aukeratu zuen: "Itsasertzeko mahastiekin eginikoa da. Freskoa". Liburuaren egileari ere gustatu zitzaion aukeraketa: "Ez naiz ardozalea baina txakolina gustuko dut".

**Zentzumenak nahasteko aukera ederra izan zuten atzo Talai-Berri txakolindegira bertaratu ziren lagunek**

Katixak Agirrek jarraitu zuen ibilbidea *Atertu arte itxaron* bere lehen eleberriarekin. Euskal Herrian barrena eginiko bidaia kontatzen du. Aproposa zen ekitaldirako, bidaian zehar geldialdiak egiten dituztelako jateko eta edateko. "Batez ere ardoa dago tar-

**EGITARAUA**

● **Irekiera, gaur.** Anjel Lertxundi 19.30ean Modelon eta jarraian, *Porto* ikuskizuna, Harkaitz Cano eta Mursegoren eskutik. Sarrera hiru euro.
● **Bihar.** Liburu azoka goiz eta arratsalde Zigordia kalean eta Garoan, liburu aurkezpenak. Gainera, Poesia azpititulatzeko tailerra (10.00), udaletxean. Doan; *Erractus* ikuskizuna (12.00), Danele Sarriugarte, Jule Goikoetxea eta Kattalin Minerren eskutik, Modelo aretoan (hiru euro); azpititulatutako poseian emanaldia (13.00), Garazi Arrulak aurkeztuta, Modelo aretoan (doan); Ardoa eta Odola ekitaldia (17.00); Mormoien bisita (Nora Barnacleren omenez) 19.00etan; poteo literarioa (20.00) Jon Alonsorekin, Musika Plazatik abiatuta. eta 22.00etan Bertso-kata literarioa, Putzuzulo gaztetxean.
● **Igandean.** Liburu azoka eta aurkezpenak; *Idazlea zeu zara irakurtzen duzulako* ikuskizuna, Dejabu Panpin Laborategiaren eskutik (11.30); hiruko solasaldia Arantxa Urretabizkaia, Karmele Jaio eta Arantxa Iturberekin (12.30); *Irudi mintzatuen hiztegi poetikoa* ikus-entzunezkoa (17.00) eta ondoren, Itxaro Bordaren errezitaldia, Itxaso Gutierrez musikariak lagunduta.

**ERAKUSKETAK**

● **Argazkiak.** Ramon Serrasen argazki-erakusketa, Modelo aretoan (gaurtik igandera)
● **Soinuak.** Xabi Erkiziak liburu eta irudietatik erauzitako soinuekin. Arte eta Historia Museoan (igandera arte).

**SARRERAK**

● **Bonoak.** Sarrerak egunean bertan erosteko aukera izango da. Bonoak hamabi euroan jarri dira salgai, eta ekitaldi guztietarako balio du. Bonoak Sanz Enean eta Garoa liburu-dendan eskuratu daitezke aurretik. Informazio gehiago: literaturia.eus.

# "Bukaeran eskemak hausteko bideratuta dago liburua"

## Oier Santosen 'Txanpaina, mesedez' nobelak terrorismoa eta emakume bat ditu gai nagusitzat

✎ *Marta Esnaola*
📷 *Ruben Plaza*



**Oier Santos idazlea, atzo bere liburu berriaren aurkezpenean, Donostiako Alde Zaharrean.**

**DONOSTIA** – Bere lehenengo liburua unibertsitate munduan kokatuta zegoen eta oraingoan eleberri "zabalagoa eta helduagoa" idatzi du Oier Santosek (Errenteria, 1982). *Txanpaina, mesedez* (Erein) liburua nobela beltz bezala defini daiteke, poliziakoa baita, eta ikerketa bat ere badu, baina hala ere, idazlearentzat eta irakurlearentzat genero batean sailkatzeko zaila da.

"Bi plano desberdin ditu nobelak, amaieran elkartuko direnak", azaldu zuen atzo ofizioz irakaslea den idazle honek. Protagonista Markel Aizpurua izeneko ertzainburua da, kasu oso garrantzitsu batean lanean ari dena. Hasieran, hainbat auto berdez margotuta agertzen dira hirian, protesta modu bat dela ematen du. Gero, lehergailu bat zentral termiko batean, hedabideetan albiste aldrebestuak, etabar. "Aktibista ekologiko batzuk ageri dira, terroristak, eta bere bizitza arriskuan ikusiko du Markelek", adierazi zuen Santosek, eta atentatu eta atxiloketak agertuko direla gaineratu zuen.

Bestalde, bigarren plano bat badago, protagonistaren bikotekidearen gogoetak kontatzen dituena. "Eguneroko moduko bat da, eta iraganean gertatutako gauzen inguruan mintzatzen da", aipatu zuen idazle errenteriarrak. Izan ere, Markelen bikotekideak bizitza bikoitza darama, eta azkenaldian, oso portaera misteriotsua dauka. "Markel maitatu nahi du, baina guztiaren atzean maitasun istorio bat dago, *txanpaina, mesedez* entzun zuenean sortu zen lilura batetik abiatutakoa, esaldi horrek emakumearen bizitza aldatuko du", nabarmendu zuen Santosek, informazio gehiegi ez emateaz arduratuta. "Maitasuna da guztia mugitzen duen hori", azaldu zuen. Hala ere, egilearen aburuz, irakurleak sorpresa bat hartuko du liburuaren amaierara iristean: "Bukaeran eskemak hausteko bideratuta dago nobela".

Testuinguruari dagokionez, Euskal Herrian kokatuta dagoela adierazi zuen, gehienbat Donostian eta inguruko herrietan. "Bestalde, gaur egungo egoeran kokatuta dago istorioa, adibidez, Fukushimako istripua gertatu da jada liburuan", gaineratu zuen idazleak, eta gizartean "dena nahasita" dagoela esan zuen.

Nobela idazteko, denbora dexente behar izan zuela azaldu zuen Santosek: "Irakaslea naizenez, nire denbora librean idazten dut". Gainera, gauzak ondo egiteko denbora hartu zuen, eta dokumentazio lana ere egin zuen. "Adibidez, ertzain batekin bildun nintzen bere lanari buruz gehiago jakiteko, eta hedabideekin daukaten erlazioari buruz hitz egin zidan, liburuan ere prentsak garrantzia baitu", kontatu zuen. ●

tean", azaldu zuen. Marzolek errepide bustiaren usaia zuen lurrina bilatzen saiatu zela adierazi zuen. Azkenean, "kostata, baina oso gurea den usaina" topatu zuen: lur bustiarena (Demeter-en *Dirt*). Donejakue bidea igarotzen da Talai-Berri txakolindegiaren lurretatik eta eguzki gehiago jasotzen duten mahastiak daude bertan. Horiekin eginiko txakolina aukeratu zuen Eizagirrek. Gaizka Zabartek *Jende desegokia* nobelaren elizako pasartea irakurri zuen. Intsentsu eta egur usaina aukeratu zuen Phaedon etxearen *Oliban* lurrina aurkeztuz. Enologoak, berriz, ondarrubibeltzarekin eginiko txakolina eskaini zuen guztien harridurarako. "Urtero ateratzen dugu. Ez dira kantitate handiak. Mahatsak ematen dio kolorea. Gominola usaina du", argitu zuen.

Oier Santosek atzo bertan kaleratu zuen *Txanpaina, mesedez* liburua izan zuen hizpide. Talde terroristaekologista baten istorioa kontatzen du eta lurringileak zertifikatu ekologista duen L'Artisan Parfumeur-en *Jatamansi* aukeratu zuen. "Maitemin gazi-gozoa" gogora ekarriz, ozpina tokatu zitzaion. "Lagun bati esan nion ozpina aukeratu zenutela. Ederki ezagutzen zaituzte!, erantzun zidan", adierazi zuen Santosek barreak eraginez.


**Arrate Egaña idazlea.** *Argazkia: Ruben Plaza*

# Arrate Egaña idazle errenteriarrak irabazi du Mikel Zarate Saria

### 'Patioan' izeneko lana gailendu da, eta udazkenean kaleratuko du liburua Elkar argitaletxearekin

**DONOSTIA** – Arrate Egaña idazle errenteriarrak irabazi berri du aurtengo Mikel Zarate Haur Literatura Saria, *Patioan* izeneko kontakizunari esker. Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak ematen duten sarira 19 lan aurkeztu ziren, baina azkenean Egaña gailendu da eta berarentzat izango da 3.000 euroko saria. Liburua, berriz, udazkenean argitaratuko du Elkarrek.

*Patioan*-ek neska koxkor bat du protagonista, Malen, eskolako jolasorduan, mutilak patioan futbolean ari direnean, patioaren erdian jartzea erabakitzen duena, hortxe egon nahi duelako. Malenen jarrerak hainbat buruhauste sortuko ditu, eta horren aurrean modu batera nahiz bestera erreakzionatu beharko dute bere ingurukoek.

Leire Bilbaok, Miren Agur Meabek eta Antxiñe Mendizabalek osatutako epaimahaiak esan duenez, ausardia erakutsi du Egañak gaia hautatzean, eta trebezia berau lantzean. Haurrentzako istorio batek eskatzen duen sinpletasunean baina sinplekerian erori gabe.

Arrate Egaña idazleak eskarmentu handia du literaturan, eta haurrentzat zein helduentzat ipuin bildumak kalaeratu ditu azken urteetan.

Jada sariaren seigarren edizioa da, eta orain arteko irabazleak Asier Mendoza (2010), Julen Gabiria (2011), Gaizka Arostegi (2012), Irati Bediaga (2013) eta Patxi Zubizarreta (2014) dira. – N.G.